



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoak 31
Vitoria-Gasteiz, 31 de marzo de 2020

COVID19

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

**ONARTU DA KORONABIRUSAK SORTUTAKO KALTEBERATASUN
EKONOMIKOAN DAUDEN PARKE PUBLIKO BABESTUKO MAIZTERRAK
ALOKAIRUA ORDAINTZETIK ALDI BATERAKO SALBUESTEA
ARAUTZEN DUEN AGINDUA**

Gobernu Kontseiluak bidea eman dio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolaren Aginduari. Koronabirusak sortutako kalteberatasun ekonomikoa jasaten ari diren alokairu babestuko parke publikoko maizterrak alokairua eta erkidego-gastuak ordaintzetik ohiz kanpo eta aldi baterako salbuestea arautzen du agindu horrek. Neurri hori alokairu babestuko beste etxebizitza-parke batzuei ere hedatzen zaie.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du alokairuen ordainketa, COVID-19 funtsaren zuzkiduraren bitartez, eta 2,5 milioi euro bideratuko ditu horretarako.

Osasun-emergentziak eragindako krisialdiaren ondorioz langabezia geratzen diren pertsona guztiak edo, langile autonomoak edo enpresaburuak izanik, diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada nabarmena —% 40 edo handiagoa— jasaten dutenak hartzen ditu eraginpean.

Kalteberatasun ekonomikoa dagoela irizteko, ordaindu behar den errentaren zenbatekoaren eta erkidego-gastuen baturak etxebizitza errentan hartu duen pertsonaren edo bizikidetzako unitatearen urteko diru-sarrera haztatuen % 30 baino handiagoa izan beharko du. Kalkulu horiek babes ofizialeko etxebizitzetzi buruzko araudiaren arabera egingo dira.

Salbuespena hil osoen arabera aplikatuko zaie 2020ko apirileko, maiatzeko eta ekaineko errentei.

Eskabideak aurkezteko epea irekita egongo da agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik 2020ko maiatzaren 31 arte edo, hala badagokio, alarma-egoera amaitu eta hilabete igaro arte.

Eskabideak lehenasunez modu telematikoan aurkeztuko dira www.euskadi.eus/servicios/11022401 webgunean eta Alokabide SA sozietate publikoak webgune honetan dituen kanalen bitartez: www.alokabide.euskadi.eus. Aurrez aurre ere aurkez daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikuluan aurreikusitako edozein organoren aurrean, baita Zuzenean herritarrentzako zerbitzuaren bulegoetan ere, alarma-egoerak uzten duenean.

Salbuesteko neurriak Vivienda y Suelo de Euskadi SA - Euskadiko Etxebizitza

eta Lurra EA (Visesa) sozietateak aplikatu ahal izango ditu, baita Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzan eta zuzkidura-bizitokiaren titular diren beste eragile publiko eta pribatu batzuek ere, baldin eta indarreko edozein babes-formularen bitartez alokairuan lagata badituzte.

Kasu horietan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Covid-19 funtsaren kargura ordainduko dizkie aukera horretara bildu diren erakundeei salbuetsi izana egiaztatzen duten errentei dagozkien zenbatekoak. Ondorio horietarako, 2020ko uztailaren 31 baino lehen igorriko dute kobratzeari utzi dioten guztizko zenbatekoari dagokion ziurtagiria.

Alokairu-errenten ordainketatik salbuesteko neurri horiek Gaztelagun, Bizigune eta ASAP programak ere barnean hartzen dituzte.

Eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, www.euskadi.eus/servicios/11022401 webgunean eskura daitekeen ereduaren arabera. Bertan adieraziko da agindu horretan araututako salbuespenaren onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla.

Eskabidean berariaz adierazi beharko dira familia-unitateko kide guztien diru-sarrerak, 2019 abenduari eta 2020ko urtarrilari eta otsailari dagozkienak, baita eskabidea aurkezten den hilari dagozkionak ere.

Besteren konturako langileek eskabidean adierazi beharko dute zein enpresatan lan egiten duten, enpresa horri ekonomia-jardueraren zein sektore dagozkion eta langabezia-egoera zein egunetan hasi den.

Langile autonomoek edo enpresaburuek, bestalde, ekonomia-jardueraren zein sektoretan jarduten duten adierazi beharko dute erantzukizunpeko adierazpenean.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ofizioz kontratatuko du, Lan eta Justizia Sailarekin edo lan-agintaritzaren eskudunarekin, Covid-19 gaitzak eragindako osasun-krisiaren ondorioz erabakitako enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente bat edo beste edozein enplegu-espediente dela besteren konturako langileen langabezia-egoeraren jatorria.

Ofizioz egiaztatuko du, halaber, langabezia-prestazioak kudeatzen dituen erakundearekin, langabezia-egoera zein egunetan hasi den eta zein den langabezia-prestazioen kontzeptupean jasotzen duen hileko zenbatekoa.

Langile autonomoen edo enpresaburuen kasuan, sailak egiaztatuko du eskatzailea benetan dagoela alta emanda eskabidean adierazi duen jardueraren sektorean, eta, orobat, sektore hori martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzat ireki ezin diren jardueren zerrendan sartuta dagoela. Eta errege-dekretu horretan sartuta ez dauden sektoreen kasuan, foru-ogasun eskudunak edo, hala badagokio, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak dauzkan datuekin kontratatuta egiaztatuko du eskabidean adierazi den diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada gertatu dela.

COVID19

Ogasun eta Ekonomia

EUSKO JAURLARITZAK, –EUSKADIN ARI DIREN 15 FINANTZA ERAKUNDEEKIN ETA ELKARGIREKIN BATERA– ETE-EI, MIKROETE-EI ETA AUTONOMOEI FINANTZA LAGUNTZA EMATEKO 500 M/€-KO PROGRAMA AKTIBATZEA ONETSI DU

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio gaur enpresa txiki eta ertainei, mikroETEEi eta autonomoei laguntzeko finantza programaren aktibazioari. Programak 500M/€ bideratuko ditu gauzatu beharreko maileguetara, eta 6 hilabeteko likidezia eta finantzaketa beharrei erantzutea izango du helburu. Gaur onartu eta astean zehar EHAA n argitaratu ondoren, Eusko Jaurlaritzak datorren astean sinatuko ditu hitzarmenak ELKARGIrekin eta Euskadin diharduten 15 finantza erakundeekin. Horrela, ABANCA, BANKIA, BANKINTER, BBVA, CAIXABANK, CAJA RURAL DE NAVARRA, TARGOBANK, FIARE, IBERCAJA, LABORAL KUTXA, SABADELL, BANKOA, KUTXABANK, ARQUIA eta BANCO SANTANDER, buru-belarri ari dira lanean Eusko Jaurlaritzarekin batera, Covid-19ak euskal enpresa sarean eragingo dituen kalteak arintzen laguntzeko, jarduera ekonomikoko sektore guztientzat zabalik dagoen finantzaketa lerro honen bitartez.

Finantzaketa lerro horrek aipatutako enpresen eta autonomoen egiturazko gastu finkoei eman gura die estaldura, enpresa sarean duten garrantzia, ekoizpen jarduera osoan duten eragina eta handizkako finantzaketa merkatuetara edo kreditu erakundeen maileguen lerro tradizioaletara iristeko ahalmen erlatibo txikiagoa dutela kontuan hartuta.

Onuradunak:

- Baldintza hauek betetzen dituzten Euskadiko ETEak:
 - 250 langile baino gutxiago izatea.
 - Urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez izatea.
 - Adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duen beste enpresa batek edo batzuek, zuzenean edo zeharka, ETE horren %25eko edo gehiagoko partaidetza ez izatea.
- Euskadiko norbanako enpresariak (mirkoETEEak) eta autonomoak:
 - Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian alta emanda egotea.
 - PFEZari lotetsitako jarduera ekonomikoetatik edo profesionaletatik etekinak lortzea.

Maileguen zenbatekoak:

- 5.000€-1.000.000€ ETEentzat.
- 5.000€-100.000€ MikroETEentzat eta profesional autonomoentzat.

Finantza eragiketak:

- Tresna: mailegu amortizagarria.
- Interes tasak: %0, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen baititu.
- Mailegu eragiketen epea: 5 urte (urtebeteko gabezia, nahi izanez gero)
- Euribor aplikagarriarekiko diferentziala: %0,50
- Likidazioaren aldizkakotasuna: hiru hilabetez behin.
- Komisioak: 0€. Mailegu hartzaileak mailegua aurretik kitatu edo amortizatu ahal izango du, inolako kosturik gabe.

Abalen kostua eta baldintzak:

- Gauzatze komisioa eta azterketa komisioa: gauzatutako abalaren %0,25, behin bakarrik ordaindu beharrekoa.
- Abalaren komisioa: %0,75 urtean. Komisio horrek Eusko Jaurlaritzaren %50eko diru-laguntza izango du.
- ELKARGIk ez du inolako komisio edo gastu gehigarriarik aplikatuko.

Informazio gehiago eta eskari inprimakiak helbide honetan:

www.euskadi.eus – Ogasun eta Ekonomia Saila- Finantza Politika Zuzendaritza- Finantzaketa Lerroak

Lehendakaritza

EUSKAL GIZATALDEETAKO PERTSONEN PREMIA LARRIKO EGOEREI ERANTZUTEN LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak Euskal Etxeetarako 202.000 euroko laguntza-saila onartu du gaur. Euskal gizataldeetako pertsonen premia larriko egoerei eta laguntza-beharrei erantzuteko bideratuko da diru hori.

Gaur onartutako laguntzei esker arreta jasoko dute gizarte-bazterketako egoera larrian dauden pertsonak, dela herrialde batzuetan izandako moneta-oszilazioen eta ekonomia-gabezien egoeragatik, dela adinagatik, dela gabezia-egoerengatik, dela osasun-krisialdiengatik edota bat-batean sortutako istripuen ondoriozko ezgaitasunengatik.

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Euskal gizataldeko kidea direla egiaztatzea.
- b) Atzerrian bizi izatea.
- c) Laguntzako beharrei edo premia larriko egoerei aurre egitea ahalbidetzen duten ondasunik edo diru-sarrerarik ez edukitzea.
- d) Etxe partikularretan bizi izatea, eta araudi edo estatutuengatik laguntza eman behar dieten talde, komunitate edo erakundeetako kide ez izatea.

Laguntzak emateko orduan familiako egoera ekonomikoa hartuko da kontuan herrialdeko batez besteko errentarekin lotuta, bai eta osasun-gertakizunaren edo premia handiko egoeraren larritasuna eta eskaera beharretara egokitzea ere.

Eskatutakoaren ehuneko 100era iritsi ahal izango dira laguntzak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen oinarrizko errentaren zenbatekoa izango da muga; nolana ere, osasun-gertakizunei aurre egiteko laguntzek ez dute muga hori izango.

2003an abiarazi zenetik, Eusko Jaurlaritzak urtero deitu du laguntza-programa hau, eta horren bidez laguntza jaso dute 70-100 familiak; gehienbat Argentina, Txile, Uruguai, Venezuela eta Kubakoak izan dira onuradunak.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK DONOSTIAN BUS ELEKTRIKO ADIMENDUNA EZARTZEKO 16.705.000 EUROKO GASTUA ONARTU DU

- **Udalarekin egindako lankidetzeta-hitzarmenaren barne hartzen dira proiektua idaztea eta, ondoren, abian jartzea.**
- **BEA sistema Dbus konpainiak ematen duen GROS – AMARA 17. Linean ezarriko da**
- **Guztizko gutxi gorabeherako aurrekontua 25.700.000 eurokoa da (16.705.000 euro Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren kontura eta 8.995.000 euro Udalak jarriko ditu)**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Donostiako Udalarekin lankidetzeta-hitzarmena onartu du Bus Elektriko Adimendunaren proiektua idazteko eta, ondoren, Gros-Amara 17. Linean ezartzeko. Horretarako, 16.705.000 euroko gastua egitea onartu du.

Adostutako konpromisoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Donostiako Udalak elkarlanean jarduteko konpromisoa hartu dute, Donostiako 17. Linean BEI-BEA (Bus Eléctrico Inteligente – Bus Elektriko Adimenduna) sistema berariaz ezartzeko beharrezko finantziario bateratua eta euren eskuduntzako jarduerak gauzatzeko helburuarekin.

Gros-Amara-Miramón 17. Lineak Gros, hirigunea, Amara auzoa, Ospitaleak eta Miramongo parke teknologikoa lotzen ditu. Linea horren ezaugarri nagusietako bat beste garraiobideekin duen intermodalitatea da, adibidez, autobusen geltokiarekin, etorkizunean egingo den Abiadura Handiko Trenaren eta Renferen geltokiarekin, Topoaren igarotzearekin, eta Amara eta Anoeta inguruko Euskotrenen geltokiekin. Hain zuzen ere, 17. linea da hazteko aukera handienetakoa duen Dbus-eko linea. Ibilbideak, guztira, 14.892 metro ditu.

Proiektuan aurreikusitako jarduketak

Hitzarmenean aurreikusitako BEA sisteman ondorengo jarduketa hauek barne hartzen dira:

- 18 metroko 7 autobus % 100 elektrikoak.
- Aginte-postutik erabateko monitorizazioa.
- Geralekuan informazio-sistema interaktiboak.
- Komunikazio integratuko sarea.
- Geralekuan txartelak saltzea eta baliogabetzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dauden garraio-txartel guztiekin (BAT, BARIK, MUGI) bateragarriak diren ordaintzeko bitartekoak.

Eraikuntza-proiektuak idazteko eta Dbus-en 17. Linea BEA sistemadun linea bihurtzeko gutxi gorabeherako aurrekontua **25.700.000,00 euro** —BEZ barne— da.

Gaur Eusko Jaurlaritzak onartutako hitzarmenean, Donostiako Udalarekin elkarlanean osatu diren 2020., 2021., 2022. eta 2023. ekitaldietarako aurrekontuko kontsignatzea eta zenbatekoak zehaztu dira. *(Ikusi taula)*. Halaber, 17. Linean bus elektriko adimenduneko sistema ezartzeko eraikuntza-proiektua osatzeko prozesuan laguntza teknikoa Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea (ETS) Erakunde Publikoaren bitartez eman ahal izango dela zehazten da.

INBERTSIOAK	2020	2021	2022	2023	GUZTIRA
Eraikuntza-proiektua	400.000	600.000			1.000.000
Obrak		180.000	20.800.000	3.720.000	24.700.000
GUZTIRA	400.000	780.000	20.800.000	3.720.000	25.700.000

FINANTZAKETA	2020	2021	2022	2023	GUZTIRA
Eusko Jaurlaritza	260.000	507.000	13.520.000	2.418.000	16.705.000
Donostiako Udala	140.000	273.000	7.280.000	1.302.000	8.995.000
GUZTIRA	400.000	780.000	20.800.000	3.720.000	25.700.000

Jarduketa hori **Garapen Jasangarriaren Gida Plana: Euskadi 2030** izeneko planaren barne jasota dago. Plan horren helburua da garraio-eredu iraunkorra eta integratua sortzea, Euskadiren gizarte-kohesioko eta garapen sozioekonomikoko tresna gisa.

Bestalde, 2018ko otsailaren 13an, Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak **lankidetzarako protokolo orokor** bat sinatu zuten, “Smart Mobility” mugikortasun eraginkorrari eta integratuari lotutako hainbat jarduketa Donostiarako gauzatzeko. Bi administrazioen helburua da, trafikoaren eta garraioaren arloetan, ingurumen-sentsibilitate eta berrikuntza teknologiko handiko hainbat jarduketatan elkarrekin aritzea. Eta jarduketa horien artean aurkitzen da BEA – Bus Elektriko Adimendunaren Sistema.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

IRAGARRI DIRA NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN BARRUAN (NPB) 2020RAKO EMANGO DIREN LAGUNTZAK, 45 MILIOI EURO INGURUKOAK DIRENAK

- Datorren maiatzaren 15ean bukatuko da eskaerak aurkezteko epea, eta agian egun hori aldatu egingo da dekretutako krisi egoera dela-eta, betiere Europar Batasunak baimentzen badu
- Funtsezkoa da laguntzak Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek batera kudeatzea, injektatutako funts kopuru handi hori sektorerara irits dadin, atzerapenik gabe, egungo krisi egoera gorabehera

Nekazaritza Politika Bateratuaren barruan (NPB) 2020rako emango diren zuzeneko laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak. Laguntzak 44,8 milioi eurokoak izango dira, eta eskaerak Nekazaritzako Eskualde Bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, datorren maiatzaren 15era arte.

Dekretu honen xede diren laguntzak bost talde handitan bereizten dira:

- Oinarrizko ordainketa: Nekzariak nekazaritzako jarduerak garatzeagatik jasotzen dituen zuzeneko laguntzak.
- Klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza jardueretarako ordainketa (ordainketa berdea edo greeninga)
- Nekazaritza jarduera bati ekiten dioten nekazari gazteentzako ordainkea osagarria
- Nekazaritza ustiategi txikietarako erregimen erraztua
- Nekzariei edo abeltzainei lotutako laguntzak.

Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundien arteko kudeaketa partekatua

Laguntza horiek Europako Erkidegoko funtsekin finantzatzen dira. Zehazki, FEAGAtik datoz funts horiek, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan jasota daude, aurrekontuko bi ekitalditan (2020 eta 2021), Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren barruko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzaren barruan. Laguntza horien kudeaketa Foru Aldundiei dagokie, eta haiekin izenpetutako hitzarmenen arabera, Foru Aldundiak dira, bulego kitatzaile ofizialak diren heinean, laguntzaren onuradunari laguntzaren zenbatekoa sartuko diotenak.

Aldundiek eskaerak jaso eta dagozkien kontrolak egiten dituzte; Hazi Fundazioak ordainketaren aurretiko kalkuluak eta kontrol administratiboak egiten ditu, zerbitzu teknikoa den heinean; eta Eusko Jaurlaritzak araudira egokitzen dela ikuskatu, eta ordainketa egitea agintzen du. Gero, foru aldundiek gauzatu egiten dute.

Garrantzitsua da azpimarratzea agente guztien arteko koordinazioa oinarrizkoa dela, sartu diguten funts kopuru nabarmen hori lehen sektorerara irits dadin, garaiz eta ezarritako moduan, atzerapenik gabe, egungo krisi unea gorabehera.

Aurreko kanpainen zenbatekoa

Azken bi urteetan egindako ordainketen arabera eta kontuan izanda aurtengo urterako aurreikusten dena, berresten da denbora batean 44 milioi euro inguru izango ditugula batez beste (43,53 milioi euro, 2017ko eskaera urterako; 43,51 milioi euro, 2018ko eskaera urterako; eta 43,03 milioi euro 2019ko eskaera urterako). Euskadin, laguntzak 7.305 nekazariri eman zaizkie: 1.709 onuradun Araban, 2.476 Bizkaian, eta 3.120 Gipuzkoan.

2020ko kanpainaren zenbatekoa

2020ko kanpainan (2020ko eta 2021eko aurrekontu ekitaldiak), kalkulatu da 44,79 milioi euro gordin ordainduko direla, honela banatuta:

- Oinarrizko ordainketa 21,70 milioi euro
- Ordainketa Berdea (Greeninga) 11,42 milioi euro
- Nekazari gazteak 0,70 milioi euro
- Nekazari Txikientzako Erregimen Erraztua 1,42 milioi euro
- Laguntza elkartuak 9,55 milioi euro

Eskaerak egiteko epeak eta baldintzak

2020ko kanpainan, aurreikusitako laguntzak eskuratzeko eskaerak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren menpeko Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak aurreikusitako edozein lekutan aurkeztuko dira, datorren 2020ko otsailaren 1a eta maiatzaren 15a arteko epearen barruan. Informazio gehiago hemen: www.euskadi.eus.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

ELIKAGAIEN ERALDAKETAN ETA MERKATURAKETAN INBERTSIOAK EGITEKO ETA LABORANTZA ESTENTSIBOAK DIBERTSIFIKATZEKO 14,5 MILIOIREN LAGUNTZAK ONARTU DITU EUSKO JAURLARITZAK

- **Lehiatu Berria programak, bere azken hiru deialdietan, 35 milioi euro baino gehiagoren laguntzak eman ditu elikagaien eraldaketarako eta merkaturaketarako**
- **Laborantza estentsiboetarako laguntzak nekazaritzaren sektorera bideratuta daude, eta 1,25 milioi euroren laguntzak dira.**

Euskadiko lehen sektorea eta elikagaien industria bultzatzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantza Tapiak emandako bi agindu onartu ditu Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak. Lehenengo aginduak Lehiatu Berria programaren deialdiaren oinarriak arautzen ditu, 2020rako, zeinak nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzatik eta akuikulturatik eratorrirako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntzak aurreikusten dituen. Bigarrenak, berriz, nekazaritzako ekoizpen teknika iraunkorren bidez laborantza estentsiboak dibertsifikatzeko laguntzak iragaritzen ditu, 2020rako, horretara 300.000 euro bideratuta.

Lehiatu Berria

LEHIATU BERRIA programak nekazaritza, elikadura, basogintza eta arrantza industrientzako laguntzak jasotzen ditu bere baitan. Nekazaritzako produktuen, elikagaien eta arrantzatik eta akuikulturatik eratorritako produktuen eraldaketan eta merkaturatzean inbertsioak egiteko laguntzak dira.

Zehazki, honetarako dira laguntzak:

- Nekazaritzako produktuen eraldaketan, merkaturatzean edo garapenean inbertsioak egiteko laguntzak, eta basogintzako produktuen eraldaketara eta merkaturatzera bideratutako inbertsioak egiteko laguntzak.
- Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaien industrietan inbertsioak egitea, aurreko ataletan sartzerik ez badute.

Modalitatearen arabera, onuradunak pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke: nekazariak edo nekazari elkarteak, nekazaritzako kooperatibak edo nekazaritzako elikagaien enpresak, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak. Inola ere ezin izango dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateak.

Programa honen baitako laguntzak 2017an iragarri ziren lehen aldiz. Harrez gero, 3 urteko aldi honetan, 623 eskaerari erantzun zaie eta laguntzak 35.284.824 eurorenak izan dira.

Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta alarma egoera adirazten duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak edo, kasua bada, bere luzapenek indarrean egoteari utzi eta hurrengo hilabetearen amaieran amaituko da.

Laguntza eskaera egiteko inprimakia web helbide honetan egongo da eskuragai: <http://www.euskadi.eus> Eskabideak Elikagaien Kalitatearen eta Industrien Zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailak Vitoria-Gasteizen duen bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Prozeduraren Legeak aurreikusten dituen lekuetako edozeinetan.

Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa

Laguntzen onuradunak izan daitezke nekazaritza ustiategien titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak, edo legez eraturako nekazari taldeak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan lursailak baldin badituzte. Lursail horiek dagokien erregistro ofizialean erregistratuta egon behar dira, eta ustiategian aurreikusitako laborantza gutxietatik gutxienez 2 ha laborantza estentsiboak izan behar dira, Ha 1 baino gutxiagoko laborantza multzoak ezingo baitira diruz lagundu. Hauek dira aurreikusitako laborantzak:

- Udako laborantza ureztatuak diren lekale haziak gizakien kontsumorako.
- Udako laborantza ureztatuak diren barazki estentsiboak
- Hazitarako patata eta gizakien kontsumorako patata
- Azukrerako erremolatxa.

Baldintzak

Ustiategien titularrek agindu behar dute gutxienez 5 urteko epean nekazaritza eta ingurumenaren alorrean eskatzen zaizkien konpromiso eta teknikak aplikatuko dituztela.

Agindutako aldia bukatu eta gero, eta dagokion araudiak eta aurrekontuetan erabilgarri dagoenak egiten uzten badute, laguntza urtebete luzatzeko eskatu ahal izango da.

Eskatzaile bakoitzak 240 eta 600 euro arteko laguntza jasoko du hektareako, laborantza motaren arabera eta nekazaritzari eta ingurumenari lotuta derrigor eta gehigarri gisa hartzen dituen konpromisoen arabera. Laguntza ezin da inola ere 600 eurokoa baino handiagoa izan hektareako. 2020an, Agindu honen ondoren emango diren laguntzen gehieneko bolumen osoa 1.250.000 eurokoa izango da.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari dagokie Agindu honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa. Eskariak Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan edo, bestela, Legeak aurreikusten dituen lekuetako edozeinetan aurkeztu beharko dira. Kontuan hartuko dira eta baliozkotzat joko dira 2020ko otsailaren 1etik "Eskaera Bakarra"-ren aurkezpen epea amaitu arte xede horrekin aurkeztutako laguntza eskaerak.

Hezkuntza

**DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREKIN ETA MONDRAGON
UNIBERTSITATEAREKIN SINATUTAKO KONTRATU-PROGRAMEN 2020ko
FINANTZIAZIOA 976.000 EUROAN HANDITZEA**

- **Kopuru berria *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da, bi unibertsitateetan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2020 urtean “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programarako Deustuko Unibertsitateari eta Mondragon Unibertsitateari emandako finantzazioa 976.000 euroan handitzea.

976.000 euroko kopuru hau, *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da. Programa hauek “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programan dagoeneko jasorik dauden ekintzen osagarri gertatzen dira. Diru-kopuru hau, honela gelditzen da banaturik, unibertsitate bakoitzeko:

	<i>Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa</i>	<i>Gazte ekintzailtza</i>	Guztira
Deustuko Unib.	550.000 €	60.000 €	610.000 €
Mondragon Unib.	330.000 €	36.000 €	366.000 €

Gaur onartu den finantzazio handitzea, Kontratu-Programak sinatzean dagoeneko 2020 urterako bi unibertsitate hauentzat onartu zen 14,9 milioi euroko kopuruari gehitzen zaio.

“*Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa*” programaren helburua da unibertsitate-ikasketetako azken kurtsoan dauden ikasleek edo eta unibertsitate titulu ofizial baten jabe direnek trebetasun handiagoa lortzea; izan ere, profil konkretu bati buruzko gaitasunei lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak lortuko dira, lan-esperientzia bat egiaztatzeko aukera honen bidez.

Programa honetan parte hartuko duten ikasleek hiru hilabeteko egonaldia egingo dute enpresa batean. Aurrez, unibertsitateak hitzarmena sinatua izan beharko du enpresa horrekin. Unibertsitatea ikasle horien jarraipena egiteaz arduratuko da. Programa hau gehienez bi unibertsitateetako 440 ikasleri zuzenduko zaie.

Bestalde, “**Gazte ekintzailera**” programari dagokionez, kultura ekintzailea unibertsitateko ikasleen artean aktibatzea du helburu. Horretarako, laguntza bat emango die eremu horretan sor daitezkeen enpresa-ekimenei eta enplegu berriak sor ditzaketen autonomo eta mikroenpresen ekimenei. Programa hau gehienez bi unibertsitateetako 16 proiektuentzat izango da.

2019-2022 aldirako Kontratu-Programak

2019ko uztailean, eta 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren baitan, Hezkuntza Sailak hiru Kontratu-Programa sinatu zituen Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzarekin. Orotara 200 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa (200.086.186 €) jasotzen da lau urterako (2019-2022):

- “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Programa-Kontratua.
- “Bikaintasun-ikerketa” Programa-Kontratua.
- “Prestakuntza eta Nazioartekotzea” Programa-Kontratua.

Kontratu-Programak unibertsitateak finantzatzeko tresna bat dira. Unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeak baldintzatzen du finantzaketa hori. Unibertsitate-politikako tresnak dira, eta aparteko baliabide ekonomikoak helarazten dizkiete goi-mailako hezkuntza-zentroei. Hauek jasotzea, aldean artean adostutako helburu estrategikoak betetzearen baldintzapean dago.

Unibertsitateekin sinatutako “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programak, besteak beste, unibertsitateen eta enpresen eta beste erakunde batzuen arteko harremana sustatzeko jarduerak egitea aurreikusten du. Beraz, gorago azaldutako programa horiek dagoeneko Kontratu-Programetan aurreikusten zirenen osagarri dira.

COVID 19

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

APROBADA LA ORDEN QUE REGULA LA EXONERACIÓN TEMPORAL DEL PAGO DEL ALQUILER DE PERSONAS INQUILINAS DEL PARQUE PÚBLICO PROTEGIDO EN SITUACIÓN DE VULNERABILIDAD ECONÓMICA GENERADA POR EL CORONAVIRUS

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la Orden del Consejero de Medio Ambiente, Planificación y Vivienda, Iñaki Arriola, que regula la exoneración extraordinaria y temporal del pago del alquiler y de los gastos de comunidad a las personas inquilinas del parque público de alquiler protegido, que se encuentren en una situación de vulnerabilidad económica generada por el coronavirus. Esta medida se hace extensiva a otros parques de viviendas de alquiler protegido.

El Gobierno Vasco se hará cargo del pago de los alquileres a través de la dotación del FONDO COVID-19 y destinará para ello, 2,5 millones de euros. Afecta a todas aquellas personas que se queden en el paro como consecuencia de la crisis provocada por la emergencia sanitaria o a todas aquellas que, siendo trabajadoras autónomas o empresarias, sufran una pérdida sustancial de los ingresos o una caída sustancial de las ventas, igual o superior al 40%.

Para considerar que se da la situación de vulnerabilidad económica, el importe de la renta que debe ser abonada más los gastos de comunidad, tendrán que ser superiores al 30% de los ingresos anuales ponderados de la persona o unidad convivencial arrendataria calculados con arreglo a la normativa sobre viviendas de protección oficial.

La exoneración se aplicará por meses completos a las rentas correspondientes a los meses de abril, mayo y junio de 2020.

El plazo para la presentación de las solicitudes estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden en el BOPV hasta el 31 de mayo de 2020 o, en su caso, hasta un mes después de la finalización del estado de alarma.

Las solicitudes se presentarán preferentemente de forma telemática en www.euskadi.eus/servicios/11022401 y a través de los canales que la sociedad pública Alokabide S.A. mantiene en www.alokabide.euskadi.eus. También de forma presencial ante cualquiera de los órganos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como en las oficinas del Servicio de Atención a la Ciudadanía Zuzenean, cuando lo permita el estado de alarma.

Las medidas de exoneración podrán ser aplicadas por Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.–Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (Visesa) y por otros agentes públicos y privados titulares de viviendas y alojamientos dotacionales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que las tengan cedidas en alquiler bajo cualquiera de las fórmulas de protección vigentes.

